



ikastolak



BAZTAN IKASTOLA
ELIZONDO



'Txikiak Handi' hizkuntza gutxituen garrantzia azpimarratzeko proiektuaren eskutik, Poloniako Kaxubia eskolan egon da berriki gure ikastolako irakaslea.

📷 Baztan Ikastola

ELIZONDO – *Txikiak Handi* proiektua dela eta hasi zen Baztan Ikastolaren harremana kaxubiarrekin. Kaxubiarak Poloniako ipar-erdialdeko Pomerania eskualdean bizi dira. Ezagutzen ez duzenontzat, *Txikiak Handi* munduko hizkuntza gutxituen handitasuna aldarrikatzeko eta haien arteko zubiak eraikitzeke Nafarroa Oinez proiektu iraunkorra da. Honen bidez, hizkuntza gutxituen normalizazioaren aldeko babesa lortzea da helburua.

Baztan Ikastolak 2015. urtean antolatutako Nafarroa Oinez geroztik egon da Kaxubiarrekin kontaktuan eta taldean egondakoetako bat gure ikastolako Miren Garmendia irakaslea izan da. Kaxubiarrek hirutan egon dira gurean; 2015eko martxoan, Nafarroa Oinezeko egunean eta 2016ko abenduan. Aurten go irailean, Mirenek eta bertze taldekideetako bat den Maialenek bertara gerturatzeko aukera izan dute lehenengo Kaxubiar eskolaren irekiera ekitaldira, hain zuzen ere. Beraientzat izugarritzko aurrera pausoa izan da hau eta arras kontente daude, baita gu ere.

Honengatik guztiagatik elkarriketa txiki bat prestatu dugu 6. mailako ikasleek Mirenentzat. Nola hasi zen harremana kaxubiarrekin?

–2015eko Nafarroa Oinezeko urtean *Txikiak Handi* taldetik hasi zen harreman hau. Taldekideetako bat Polonian zegoen lanean eta bere bidez hasi zen Kaxubiar lurraldeko lagunekin harremana. Urte guzian zehar elkar ezagutzeko hainbat proiektu egin genituen.

Urteak pasatu dira eta aurten bertara joatea erabaki duzue, nola sortu zen ideia?

–Bai. Aurtengo maiatz inguruan berri orain aliegatu zitzaizkigun handik: lehendabiziko eskola erekitzea erabaki zuten!! Izan ere, orain artio ez zegoen kaxubieraz ikasteko aukerarik. Handik gonbitea luzatu ziguten eta ilusio handiz joan ginen Maialen Sobrino eta biak. Ikasturtea irailaren 4an hasi zen eta irailaren 2an eskolako

Miren Garmendia

IRAKASLEA

“Hizkuntza ttikien garrantziaz ohartu gara Kaxubiako egonaldian”



irekiera ekitaldia izan zen. Bi egun horietan han egoteko aukera izan genuen.

Zer moduzko esperientzia izan da?

–Arras aberasgarria izan zen; haiekin elkartzen garen aldiero bi hizkuntza ttikiak elkartzen ditugu eta solasaldi ederrak izaten ditugu. Guretako hunkigarria eta arras pollita izan zen momentu berezi hori han bizitzea. Horretaz gain, han pasatu genituen 4 egunetan

“Esperientzia aberasgarria da kaxubiarrekin egotea, gure hizkuntza ttikiak elkartu eta solasaldi ederrak izaten ditugu”

“Poloniako hezkuntza sistema freskatu eta alderdi berriak landu nahi dituen eskola da Kaxubian ireki den Naja Szkola”

lurraldea ezagutzeko aukera izan genuen: Gdnask hiria, itsaso Baltiko ikustera hurbildu ginen, kaxubiarrendako ohitura den besta bat ere ezagutu genuen eta hainbat herrixka bisitatu genituen.

Zer aurkitu zenuten han? Nolako da eskola? Zer eskaintzen dute?

–Ilusioz betetako irakasletaldea ikusi genuen. Poloniako hezkuntza sistema freskatu eta alderdi berriak landu nahi dituen eskola da “Naja Szkola”. Wejherowo hirian dago eta

inguruko herrietako haurrak ere hartzen ditu. 4 gela daude, irratsaioak egiteko gela, jangela, erabilera-anitzeko gela eta denak elkartzen dituen espazio zentral bat ere badu. Poloniar kurrikulumak ezartzen dituen ohiko arloak dituzte; hauetatik erdia polonieraz eta bertze erdia kaxubieraz ikasten dituzte. Gainera, irratsaioak prestatu eta astero tarte bat hartzen dute kaxubieraz dagoen irati bakarrean parte hartzeko, *Radio Kaszëbë*. Horretaz gain, Naja Szkolak apustu berezia egin du orain arteko poloniar metodologia pedagogikoa aldatzeko. Izan ere, hondar urte hauetan pedagogian izan diren aldaketak haundiak izan dira eta berek hau aldatzeko behar haundia ikusten dute. Eta horrekin batera, IKT-en erabilera sustatu nahi dute. Horregatik, Chromebook-ak (edo tabletak) dira ikasleen eguneroko lan egiteko material garrantzitsuenak.

Eskola irekita, zein da beraien hurrengo helburua?

–Hasiera guztiak gogorrek dira; ez dute kaxubieraz idaztatuko material didaktikorik eta inguruko familien jarrera aktiboa behar dute eskola aitzinerat ateratzeko. Lan egiteko gogotsu ikusi ditugu eta hau da, gure ustez, eskola aitzinerat eramateko erronkarik garrantzitsuenetakoa. Baztan Ikastolako lehendabiziko irakasle belaunaldiak kaxubiarrek bizitzen ari diren egoera berbera bizi izan zutela azaldu genien. Izan ere, Euskal Herrian duela 50 urte inguruko egoera berdintsuan daude gaur egun Kaxubian. 250.000 biztanle ditu lurraldeak, eta horietatik 108.000 dira kaxubiera hiztunak. Beraz, belaunaldi berriek beren hizkuntza propioan ikasteko aukera izatea arras garrantzitsua da aurrera-pausuak eman ahal izateko.

Hemendik aurrera, nola jarraituko duzue kontaktuan beraiekin?

–Hemendik aitzin Naja Szkola-koekin harremana izaten jarraitu nahi dugu; gure ikasleek eta hango ikasleek elkarren berri izan dezaten, gure bi hizkuntza ttikiak haundituz elkarrekin jarraituko. Teknologia berrien bidez elkarren berri badugu, bideoak eta korreo elektronikoa maiz igortzen ditugu.

Zure ustez, zertan aberasten gaitu horrelako proiektu batek?


–Hizkuntza ttikien garrantziaz ohartarazten lagundu gaitu. Eta, dudik gabe, hau da proiektu honek eman digun alderdi garrantzitsua. ●

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zein da Txikiak Handi ekimenaren helburua?
 2. Nola deitzen da kaxubiarren eskola berria?
 3. Zenbat biztanle ditu Kaxubiak eta zenbatek dakite kaxubieraz?
- Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1 eta 2): Eneko Mayora (Elizondoko Eskola) eta Nerea Campo (Ibaialde Ikastola).
ASEGARCE (4 sarrera): Ane Urmeneta (Jaso Ikastola).
OSASUNA (6 sarrera): Baztan Ikastolako Naxara Aleman, Uxue Lizardi eta Axular Aleman.



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitoritu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.